



Nola parte hartu Fair Saturday jaialdian

Artista, espazio eta proiektu sozialek parte hartzeko gida

Abenturarako prest?

Honaino heldu bazara, Fair Saturday-ren ikuspegia eta balioak partekatzen dituzula eta gehiago jakin nahi duzula esan nahi du. Mugimendurekin bat egiteko zorian zaude.

Gida honetan, Fair Saturday-ren **aurretik, bitartean eta ondoren** zer egin behar duzun azalduko dizugu, eta modu zehatzean erakutsiko dizugu **nola parte hartu** eta mugimenduan zelan sartu artista, espazio, kultura-antolaketa edo gizarte-proiektu gisa.

Bagoaz!

Aurretik

Fair Saturday

Ondoren

• Antolatu zure ekitaldia!

Parte hartu ekitaldi berri bat antolatuz edo azaroaren 26rako, Fair Saturday egunerako, programatuta duzun zerbait gehituz.

- **Espazio** bat bazara, Fair Saturday-ko artistei zure espazioa eskaini diezaiokezu, ekitaldia egiteko tokirik ez badute.
- **Proiektu soziala** bazara, zure hiriko artistak eta kultura-erakundeak bila ditzakezu ekitaldi bat sortzeko.

• Erregistratu zure ekitaldia

Eskatzen dizugun hurrengo gauza Fair Saturday plataformaren webgunean **erregistratzea eta ekitaldi bat sortzea** da. Plataforma horren bidez, edizio bakoitzean parte hartzen duten ekitaldiak kudeatzen eta argitaratzen dira. **Zure profila eta ekitaldiak behar adina aldiz sar eta alda ditzakezu** aurtengo deialdia itxi baino lehen (data zehazteko dago).

- Bilatu festival.fairsaturday.org/eu zure nabigatzailean eta egin klik "parte hartu" botoian.
- Sortu erabiltzaile bat eta pasahitz bat.
- Egin klik "ekitaldi berri bat sortu" botoian eta bete ezazu eskatutako informazioa.

• Jarri harremanetan zure proiektu sozialarekin eta egin zarata!

Iragarri zure parte-hartzea ekitaldiaren xehetasunak partekatuz, eta aukeratutako proiektu sozialarekin lan eginez. Sartu gure webguneko "baliabideak" atalean. Bertan zure ekitaldia sustatzeko tresnak aurkituko dituzu.

Fair Saturday

Aurretik

Fair Saturday

Ondoren

- **Ekitaldia eta proiektu soziala aurkeztu**

Zabaldu jendearen artean zure ekitaldia mundu osoan zehar egiten ari diren ehunka ekitaldietako baten parte dela Fair Saturday-ri esker. Horretarako, Fair Saturday-ren ekitaldiari **ongiectorria egiteko testua** emango dizugu.

Horretaz gain, **aukeratu duzun proiektu soziala** jendaurrean aurkezteko eta mundua aldatzeko nortzuk diren eta zer egiten duten kontatzeko 5-10 minutu gorde .

- **Dena eman!**

Erakutsi zer dakizun egiten. **Distira egiteko unea da. Hau zure eguna da.**

- **Zure esperientzia partekatu**

Partekatu zure Fair Saturday esperientzia #FairSaturday hashtag-a erabiliz. Sare sozialak arteaz eta kulturaz bete ditzagun! Guk ere partekatuko ditugu, mundu osoan egiten diren ekitaldi guztiak konektatuz.

- **Oroigarri batekin amaitu**

Ekitaldiaren amaieran, **jendeari gogorarazi** bere ekarpena egin dezakela eta aukeratu duzun kausa soziala lagundu dezakela. Gainera, gertatzen ari diren beste Fair Saturday ekitaldiak partekatu, jendeak gizartean eragin soziala duten beste kultur ekitaldiak ezagutu dezaten.



Eta gero zer?

Aurretik

Fair Saturday

Ondoren

- **Partekatu zure emaitzak**

Halaber, Fair Saturday-ren **emaitza globalak iragartzeko eta elkarrekin sortu ditugunak** erakusteko beharko ditugun zifra batzuk idatzi behar dituzu: parte hartu duten artisten kopurua, bertaratuko direnen kopuru estimatua, sortutako diru-sarrerak...

- **Feedbackaren ordua da!**

Mundua ez da amaitzen Fair Saturday-ren ostean. **Zu entzuteko gaude.** Jakin nahi dugu **zelakoa izan den zure esperientzia** Fair Saturday-n eta zer hobetu daitekeen hurrengo edizioetan. Ekitaldiaren ostean **bidaliko dizugun formularioaren bidez** erantzun dezakezu.

- **Bidali zure dokumentuak**

Munduari gertatutakoa azaldu nahi diogu. Eskertuko dizugu **zure ekitaldiaren argazkiak eta bideoak** gurekin partekatzea, gure kanal desberdinetan argitaratu ahal izateko.

- **Prestatu hurrengorako!**

Datorren urteko Fair Saturday jaialdian parte hartu nahi baduzu, esaiguzu jakin bezain laster, eta martxan jarriko gara!



Zer behar duzu?

Gure lana zurekin elkarlanean aritzea da, **zure ekitaldia arrakastatsua izan dadin**. Jakina, programa eta partaide guztiak sustatuko ditugu gure media partner-en, sare sozialen eta ekitaldi garrantzitsuen bidez, baina **baliabide** hauek ere emango dizkizugu **gure webguneko tresna-atalean**:

1. Kartelak, logotipoak eta abar

Inguruan ikusgai dauden kartelak zure ekitaldiaren berri emateko modu bikaina dira. Gure **Fair Saturday kartel eta logotipoen txantiloiak deskargatu** eta zure datuekin erraz pertsonalizatu ahal izango dituzu, baita 2022 **programaren kartel orokorra** erabili ere, aurtengo edizioari begira ekitaldi gehiago baieztatu ondoren.



2. Ekitaldien webgunea

Jaialdia hurbildu ahala, parte hartzen duzun edizioako **ekitaldien programa** partekatu ahal izango duzu (online eta/edo aurrez aurre), baita **zure ekitaldi espezifikoak** ere, ahalik eta jende gehienarengana iristen direla ziurtatzeko.



3. Sare sozialak

Ez ahaztu **#FairSaturday** hashtag-a erabiltzeaz prestaketan eta jaialdian zehar zure ekitaldia(k) eta programa osoa ezagutarazteko!

- Guk sustatuko zaitugu eta sare sozialetan egiten ditugun kanpainetan sartuko zaitugu, eta zuk gauza bera egin ahal izango duzu postetarako **txantiloiak** deskargatuz, promozio-bideoak deskargatuz eta askoz gehiago eginez.
- **Facebook**-en, **ekitaldi bat sortu** eta Fair Saturday gehitu antolatzailekide edo laguntzaile gisa. Horrela, zuzenean sustatu ahal izango dugu eta audientzia handiagoa lortu.

4. Prentsa eta komunikabideak

Zure ekitaldiaren berri emateko eta zure historia partekatzeko, tokiko egunkari/aldizkariekin, irrati/telebistekin eta blogekin harremanetan jarri. Erabili **prentsa-oharraren eredu**a zure ekitaldiaren berri emateko eta nazioarteko jaialdi batean parte hartzeko.

- **Istoria bikain eta inspiratzaile bat** duzula uste baduzu, harremanetan jar zaitezke gurekin partekatzeko. Bideo labur bat ere bidal diezagukezu, eta ahal dugun guztia egingo dugu jaialdiaren sustapenean partekatzeko

Zer da hurrengoa?

Ekitaldiak igotzeko prozesuari buruz jakin behar duzun guztia eta eskaintzen dizkizugun **plataformei buruzko xehetasunak eskura dituzu gure webgunean**. Informazio gehiago nahi baduzu edo zure ideiei buruz hitz egin nahi baduzu, jar zaitez gurekin harremanetan:

✉ fsfestival@fairsaturday.org
☎ (+34) 676 77 75 91 edo (+34) 686 82 92 05

Zure zain gaude!

 Fair Saturday
Foundation



#FairSaturday
www.festival.fairsaturday.org